



Hezkuntza Eskaintza 2020-21

Uharteko Arte
Garaikide
Zentroa



“Sormen artistikoak gizaki gisa deskubritzen gaitu irudikatzeko, eraikitzeko eta eraldatzeko dugun gaitasun sinbolikoaren bidez, eta besteekin lotzen gaitu. (...) zerbait estetikoa kopiatzea edo egitea baino askoz gehiago da (...) ondoren bizitzan funtsezkoak izango diren baliabideetan gaitzea barne hartzen du (...) gelatik kanpo.”

Marian López Fernández Cao



Uharte Zentroak arreta berezia jartzen du hezkuntza komunitatea eta komunitate artistikoa lotzeko aukera ematen duten prozesuak sortzean, jardun eraldatzaile batetik, esploratzeko dauden heziketa aukera berriak bilatu eta abiaraztea dakarren alorretik.

Osasun-larrialdiak gure gorputzak, harremanak eta emozioak zeharkatzen dituen ikasturte honetan, inoiz baino apustu handiagoa egiten dugu sareko baliabideak eskaintzearen alde, espazio kritikoak, ikaskuntzakoak eta sormenezkoak sortzeko.

2020-2021 ikasturterako proposamenen helburu nagusia irakasleei hezkuntza-proposamenak garatzen laguntzea da, arte-adierazpena ardatz hartuta.

Entzun, gidatu, proposatu eta zaindu ahal izateko espazioak eta baliabideak sortuz lagundu nahi dugu.

Asmo horrekin, dagoeneko finkatuta dauden “A3” edo “Eskola Lurraldea” bezalako proiektuen berrikuspenera eta “Tresnaka” bezalako proiektu berriak konbinatzen dituen hezkuntza-eskaintza planteatzen dugu. “Tresnaka” urrian aurkeztuko dugun on-line baliabidearen osagarri den tokiko artistekin lan egiteko proposamena da.

A3

Hezkuntza formalaren barneko edozein hezkuntza mailalara zabalik dagoen deialdi bat da. Haren bidez toki bateko hezkuntza arloaren eta arlo artistikoaren arteko ezagutza trukea sortzea lortu nahi da, biak ala biak aberasteko bidea emango duena.

Gure lurraldearekin etengabeko harremanean dagoen sorkuntza, ekoizpen eta esperimentazio zentro moduan, ahalbidetu nahi dugu hezkuntza proiektuak sortzea eskolekin, tokiko artistekin lankidetzan arituta.

NORENTZAT

Ondokoa lortu nahi duten Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat:

- X Beren curriculum edukiei begirada bat ematea arte garaikidetik.
- X Esperientzia estetiko bat bizitzea, erakunde artistiko batekin elkarlanean.
- X Ezagutzara hurbiltzeko eta hura eraikitzeko beste modu batzuk ikertzea.

ZER ESKAINTZEN DA?

Proiektu bat garatzea, talde bakoitzarekin 4 lan-saio izango dituen, eta horren gaia askotarikoa izan daiteke, Uharte Zentroak artistekin jardueraren unean garatzen dituen programak esparru orokor gisa hartuta.

Aurten, Uholdeak komisario proiektura hurbilduko gara bereziki. Proiektu hori Nafarroako lurralde osoan garatzen da, erakusketa eta bitartekaritza programa propioarekin.

Gaur egungo osasun-egoera dela eta, bi lan-aukera planteatzen ditugu.

A Aukera) Hezitzaile artistikoak aurrez aurre lan egin ahal izango du ikasleekin. Kasu honetan, proposamenaren sekuentziazioa honako hau izango litzateke:

- X Aurreneko saioa irakaslearen eta Uharte Zentroko hezitzailearen arteko bilera bat da. Zehazki, proiektuaren helburu zehatzak eta hurrengo saioak egiteko egunak ezarriko dira bileran. Kasuz kasu aztertuko da formatua taldearen errealitatearekin eta osasun-egoeraren bilakaerarekin bat datorren.
- X Ikasgelan saio bat egingo da, Uharte Zentroko hezitzailearen kontu. Gaiaren, proposamenaren edo prozesuaren sarrera egingo zaie ikasleei, irudien irakurketaren, ekintza bat egitearen edo tailer txiki baten bidez.
- X Saio bat egingo da Uharte Zentroan, proiektu zehatzerako aukeratutako tokiko artista baten kontu. Saio hori ikastetxean egin ahal izango da, beharrezkoa bada.
- X Azken saioa ikasgelan egingo da, eta bertan, kasu bakoitzaren arabera, taldeak proiektuari jarraipena ematea edo ez planteatuko da.

B Aukera) Arte-hezitzaileak ezin izango du ikasleekin zuzenean lan egin. Horregatik, Uharte Zentroko hezkuntza-taldeak diseinatuko du jarduera, eta irakaslea proposamena inplementatzen gidatuko du, hezkuntza-materiala, on-line baliabideak eta tutoretza pertsonalatuak diseinatu. Kasu honetan, proposamenaren sekuentziazioa honako hau izango litzateke:

1. Proposamena gelan garatu aurretik:

- X** Uharte Zentroko hezitzailearen eta irakaslearen arteko lehen on-line bilera. Bertan, proiektuaren helburu zehatzak eta inplementazio-datak ezarriko dira. Kasuz kasu aztertuko da formatua taldearen errealitatearekin eta osasun-egoeraren bilakaerarekin bat datorren.
- X** Bigarren bilera bat, proposamena gelan garatu aurretik. Biler horretan, hezitzaileak proposamen espezifikoa, denborak, tresnak eta materialak zehatz-mehatz aurkeztuko dizkio irakasleari. Erreferente, irudi eta prozesu posibleak dituen dossier bat eskainiko da, kasuan kasuko taldearen testuinguruaren arabera.
- X** Hirugarren bilera bat proposamena garatu aurretik. Biler horretan, sesioak prestatzerakoan sor daitezkeen zalantzak argitu ahal izango dira.

2. Proposamena ikasgelan garatu bitartean:

Laugarren bilera bat, proiektuan zehar ikasgelan irakasleari prozesuan laguntzeko.

3. Proposamena gelan garatu ondoren:

Bosgarren bilera. Ebaluazio-saio horretan, bizi izandako esperientzia partekatuko da, eta proiektu bakoitzerako lan-ildo ireki posibleak aipatuko dira.

IZENA EMATEA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Izena emateko epea: irailaren 10etik 30era Uharte Zentroaren webgunearen bidez.

Hautaketa hurrengo irizpideen arabera egingo da:

- X** Aurreko deialdian, 2019-20koan, parte hartu EZ zuten ikastetxeek izango dute lehentasuna. Osasun krisiaren ondorioz baliogabetu behar izan ziren taldeak izan ezik, horiek lehentasuna izango baitute gainerakoen aurrean.
- X** Izena emateko ordena eta formularioa zuzen betetzearen arabera.
- X** Ezin izango du ikastetxe bakoitzeko maila bat baino gehiagok parte hartu.
- X** Ikastetxe bakoitzeko gehienez 4 talde onartuko dira.

Izena ematea Uharte Zentroko webgunean aurkitu daitekeen formularioaren bidez egin beharko da.

<https://www.centrohuarte.es/a3-izena-eman/>

Jasotako eskaera guztiei mezu elektronikoko bat bidaliko zaie urriaren 15a baino lehen.

Argibide gehiago educacion@centrohuarte.es helbidean.

Aurreko ikasturteko A3 proiektuak ikusi nahi badituzu:

www.centrohuarte.es/eu/a3-hezkuntza-proiektua/

Eskola

Lurraldea

Nafarroako ikastetxeetarako deialdi bat da, hezkuntza berrikuntzako proiektu bat hautatu eta garatzeko, hartan, ikasturte batean, eskolaren eta lurraldearen arteko erlazioa jorratzeko.

Egungo deialdiaren oinarriak 2020ko maiatzean atera ziren, eta Zubiriko Gloria Larrainzar eskolaren “Ganando patio” proiektua laugarren edizio honetan ezarriko da, 2020-21 ikasturtean.

Hurrengo deialdia 2021eko otsaila-martxoan aterako da.

NORENTZAT

Nafarroako ikastetxe eta hezkuntza zentroetarako. Hain zuzen ere, kasu hauetakoren batean dauden 3 irakasle edo gehiagoko lan-talde bati egiten zaio proposamena:

- X Haur edo Lehen Hezkuntzako ziklo bereko irakasleak edo Bigarren Hezkuntzako sail didaktiko bereko irakasleak.
- X Ikastetxe bereko irakasleek eraturako diziplina anitzetako taldea.
- X Ikastetxe desberdinetako irakasleek eraturako talde bat.

ZER ESKAINTZEN DA?

Uharte Zentroak giza baliabideak, teknikoak eta materialak jarriko ditu (3.000 euroko balioa dutenak) hautatutako proiektuaren esku, garatu ahal izateko.

IZEN EMATEA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Izena 2021eko otsailaren 22tik aitzina eman beharko da (deialdi berriaren oinarriak data horretan ateratzeko asmoa dago), gure webgunean egongo den formularioa betez.

Aurreko urteko bideoak kontsultatzeko:
www.centrohuarte.es/eu/eskola-lurraldea

TRESNAKA

(prozesu artistikoak eskolan)

TRESNAKA Uharteko Arte Garaikideko Zentroari lotutako artisten sormen-prozesuak biltzen dituen proiektua da, artearen, kulturaren eta hezkuntzaren eremuan zabaltzeko. Prozesu bizia da, non edukiak etengabe sartzen diren.

TRESNAKA osatzen duten Artisten fitxak erakusten dira. Hainbat baliabidetatik abiatuta, haien lanera, interesetara eta sormen-prozesuetara hurbiltzea errazten da. Era berean, proposamen didaktiko batzuk proposatzen dira, arte-hezkuntzako profesionalek diseinatutako tresnak, artisten sormen-prozesuak eskoletan edo beste hezkuntza-testuinguru batzuetan erabiltzeko.

Web tresna honen erabileran interesa duten irakasleei laguntzea eta gidatzea proposatzen dugu, prestakuntza- eta esperimentazio-prozesu partekatu batean zehar.

NORENTZAT

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta irakaskuntza ez formaleko irakasleentzat, hau lortu nahi dutenentzat:

- X Curriculum hedatzea artea ikasgeletara gerturatuta prozesu, eduki eta formatu moduan.
- X Prestakuntzako beharren eta interesen gune katalizatzaile bat sortzea taldean.
- X Esperientzia estetiko bat bizitzea, erakunde artistiko batekin elkarlanean.
- X Hezkuntzako lanaren garrantzia nabarmentzea, ikasgelatik harago doan kultura ekoizle gisa.
- X Ezagutzara hurbiltzeko eta hura eraikitzeko beste modu batzuk ikertzea.

ZER ESKAINTZEN DA?

Proiektu esperimentala da, irakasleen prestakuntzaren eta ikasgeletan hezkuntza-proposamenak ezartzearen artekoa. Elkarren artean lotura estua duten hiru formatu konbinatzen ditu:

- X On-line 4 saio batera (saio bakoitzeko 2 ordu), ikasgelako lan-prozesuan lagungarri izan daitezkeen gai teorikoagoak lantzeko. (Saio horiek ikasturtean zehar emango dira, eta data zehatzak urriaren amaieran ezarriko dira parte-hartzaileekin).
- X Garatu beharreko proiektuen banakako tutoretzako 3 saio, TRESNAKA-k proposatzen dituen tresnak erabiliz.
- X Banakako 2-5 lan-saio TRESNAKA-n parte hartzen duten artistekin. Artistek parte hartzeko, irakasle parte-hartzaile bakoitzaren interesak eta testuinguruak hartuko dira kontuan.

IZEN EMATEA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Izena emateko epea: 2020ko irailaren 10etik 30era.

Izena ematea Uharte Zentroko webgunean aurkitu daitekeen formularioaren bidez egin beharko da.

www.centrohuarte.es/tresnaka-izena-eman/

Jasotako eskaera guztiei mezu elektronikoko bat bidaliko zaie urriaren 15a baino lehen.



||
Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO

Calvario, 2. 31620
Uharteko Huarte | Nafarroa Navarra
t. 948 361 457 | centrohuarte.es

Finantziatua / Financiado por

